

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

1827

HUTS-ZUZENKETA, honako Legegintzako Dekretu honen huts-zuzenketarena: 1/2025 Legegintzako Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Horrelako hutsak ikusi dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren huts-zuzenketan (2025eko apirilaren 16ko EHAA, 74 zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Euskarazko argitalpenean, 2025/1691 (3/2) orrialdean,

hau dio:

«Legegintzako Dekretuaren 170.5 artikuluan, 2025/1493 (120/54) orrialdean, honako hau dioen lekuan:

Azienda mota		Animalia bakoitza hiltzeagatik ezarritako kuota euro/animalia
a)	Lumadun ehiza xehea	
b)	lledun ehiza xehea	
c)	Erratiteak	
d)	Basurdeak	
e)	Ehizako hausnarkariak»	

baina hau esan behar du:

«Legegintzako Dekretuaren 170.5 artikuluan, 2025/1493 (120/54) orrialdean, honako hau dioen lekuan:

Azienda mota		Animalia bakoitza hiltzeagatik ezarritako kuota euro/tona
a)	Behiak, txerriak, solipedoak/ekidoak, ardiak eta ahuntzak	
b)	Etxeko hegaztiak eta abeletxeko untxiak	
c)	Lumadun eta lledun ehiza xehea	
d)	Erratiteak (ostruka, emua, ñandua)	
e)	Basurdeak eta hausnarkariak»	